


Ebanjelioa eta Aita Santuaren hitzak bat datoz Erreinuaren iragarpena ezin dela erosotasunetik edo boteretik egin, apaltasunetik, senidetasunetik eta entregatik baizik. Misioa etengabeko bihurketa bide bihurtzen da, non norberekoikeria alde batera utzi eta batasunean bizitzen ikasten den. Horrela bakarrik, fede bizi eta bihotz alai batekin, izan gaitezke Ebanjelioaren benetako lekuko eta transmititu ahal izango diegu beste batzuei Kristorengandik sortzen den itxaropena.



Galdera

1. Nola bizi ditut gaur egun Evangelii Gaudium deskribatzen dituen tentazioak (indibidualismoa, ezkortasuna, mundutasun espirituala)?
2. Zer giza segurtasunek eragozten didate Jainkoak nire bizitzan eta misioan duen probidentziak erabat fidatzea?



Bukaerako otoitza

Jesus Jauna, Bidea, Egia eta Bizitza, gure bihotza ematen dizugu, proben eta tentazioen erdian, ez dezagun inoiz ahaztu zu zarela gure indarra.

Nekeak bisitatzen gaituenean, gogoratu zure Espirituak eusten diola gure misioaren urrats bakoitzari.

Zalantzak edo tristurak itxaropena itzaltzen saiatzen direnean, erakutsi iezaguzu zure Berpizkundearen argia.

Zure egiatik aldendu nahi gaituzten ahotsetatik libra gaitzazu eta egin gaitzazu zure Hitzari otzanak.

Zure maitasunak bultza gaitzala atseginez zerbitzatzera, baita zailtasunen erdian ere.

Zure errukia babesleku izan dadila munduko sedukzioen aurrean.

Eta, zure graziak eutsita, ausardiaz iragar dezagula Zu zarela Bizitza.

Amen.

GURE AITA

IKASLE MISIOLATZIAK

Hitzarekin
topatuz

7. hitza, Mt 10. 5-15

TENTAZIOAK
BIDEAN



Donostiako
Gozaindegia
Obispado de
San Sebastián



Hasierako otoitza

Jaunaren hitza entzun ta gurea egiteko prestatuko gara isiltasun une bat eginez eta Espiritu Santuari dei eginez.

Espiritu Santua, zatoz!
Ireki gure bihotza
Jaunak Idatzietan eskaintzen digun Hitza
entzun dezagun.

Espiritu Santua, zatoz!
Emaguzu ulermena eta iraunkortasuna
Hitza ulertzeko
eta praktikara eramateko.



Sarrera

Jesus misiolari dizipulu bezala jarraitzea ez da bide erraza, ezta frogarik gabea ere. Misioak entrega, fideltasuna eta Jaunarenganako etengabeko konfiantza eskatzen ditu, baina fedea ahuldu dezaketen oztopoi ere aurre egin behar die. Horien artean, tentazioek leku berezia hartzen dute, fededuna Ebanjelioarekiko konpromisotik aldendu eta bere begirada benetako bizi-iturritik desbideratzen dutelako: Kristo.



Mt 10, 5-15

Hamabiok bidali zituen Jesusek, oharpen hauek eginez: «Ez joan jentilen lurraldeetara, ez sartu Samaria herrialdean ere, baizik eta joan Israel herriko ardi galduengana. Bidez zoaztela, hots egin Jainkoaren erregetza gainean dela.

Senda itzazue gaixoak, piztu hildakoak, garbitu legendunak, bota deabruak. Doan hartu duzue, eman doan.

«Ez eraman urrerik, ez zilarrik, ez dirurik gerrikoan, ez zakutorik biderako, ez soinekorik aldatzeko, ez oinetakorik, ezta makilarik ere, zor baitzaio langileari behar duen janaria.

«Edozein herri edo auzotara iristen zaretela, jakizue ba ote den konfiantzako inor zuek etxean hartzeko, eta geldi zaitezte harenean herri hartatik atera arte.

«Etxe batean sartzean, esan: «Bakea zuekin»; 13 etxeakoak duin badira, hel bekie zuen bakea; duin ez badira, berriz, gal bedi hutsean zuen agurra.

«Onartzen ez bazaitzute eta zuen mezua entzun nahi ez, etxe

edo herri hartatik ateratzean, astindu zeuen oinetako hautsa. Benetan diotsuet: Auzi-egunean, Sodomak eta Gomorrak zigor bigunagoa izango dute herri hark baino.



Evangelii Gaudium

78. Horrela, zenbait pastoralgileetan antzeman daiteke, nahiz eta otoitz egin, individualismoaren areagotze bat, identitate-krisi bat, eta epelkeria bat.

80. Erlatibismo praktiko hau Jainkorik ez balego bezala jokatzeari, behartsuak egon ez balira bezala erabakiak hartzea, gainerakoak egongo ez balira bezala amestea, iragarpena jaso ez duenik ez balego bezala lana egitea. Atentzioa ematen du, uste dokrinal eta espiritual sendoak dituztenek ere, segurtasun ekonomikoei heltzera, edo botereko nahiz eta giza loriako guneetara jotzea, misio-egintzan besteengatik bizitza eman beharrean.

85. Gogo bizia eta ausardia itotzen dituzten tentaldi serioenetakoa porrota da, ezkor kexati eta ozpin-aurpegia duten lilura-gabeko bihurtzen baikaitu.

93. Mundutarkeria espiritual —erlijiozkotasun-itxuretan eta baita Elizarekiko maitasun-itxuretan ezkututzen dena— Jaunaren aintza bilatu beharrean, gizakien aintza eta norbere ongizatea bilatzea da.

98. Jainkoaren Herriaren baitan eta elkarte ezberdinetan, zenbat gerra!

100. Nor ebanjelizatu behar dugu jarrera horiekin?

101. Erresuminduta gauden haren alde otoitz egitea maitasun urrats eder bat da, eta ebanjelizatze ekintza bat. Egigun gaur bertan! Ez diezagutela elkar maitasunaren ideala ostu!



Gogoeta

Ebanjelioak erakusten digu nola Jesusek bere ikasleak bidaltzen dituen Erreinua iragartzera, Jainkoaren probidentzian erabateko konfiantza eta xalotasunez. Ez ziren aberastasun, giza segurtasun eta erosotasunetan oinarritu behar, baizik eta Hitzaren indarrean eta haietan diharduen Espirituaren boterean. Doan jaso dutena doan emateko aginduak gogorarazten digu misioa ez dela negozio bat, ezta prestigioa bilatzeko modu bat ere, baizik eta Jainkoaren herriari doan eta eskuzabaltasunez emandako zerbitzu bat.